BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
18/12/12

# Batzar Nagusiek Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskala onetsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzko foru araua onetsi dabe gaur goizean Gernikan. Erespena, beste taldeek Aldundiak aurkeztutako testuaren aurrean zuzenketa-eskerik aurkeztu barik heldu da Batzarretako azkenengo izapide horretara.

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean aurretik adierazotakoagaz bat etorrita, Foru Arau Proiektuak Euzko Abertzaleen, Euskal Sozialisten, Talde Popularraren eta Talde Mistoaren aldeko botoak jaso ditu. EH Bildu eta Podemos taldeak, barriz, abstenidu egin dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzko foru arauaren proiektua 54 artikulutan egituratzen da, eta Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak aurkeztu dau Bizkaiko Batzarretan. Iruarrizagak barriro azaldu dau testuak “kooperatiben azterketa barri osoa, horreen araubide fiskal bereziarena” egin gura dauela, “kooperatiben egiturea, kontzeptuak, teknika juridikoa, genero ikuspegia eta bestelango alderdiak egokituz”.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak, kooperatiba mobimenduak Bizkaiarentzat “gure errealidade ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan eta sustapenean” daukan garrantzia balioan jarten dauen aldaketa horren alde agertu dira.

Javier Ruiz Talde Popularraren bozeroalearen eretxiz be, Foru Arau Proiektua “egokia” da, “Bizkaian garrantzi handia eta enplegu askotan eragina daukan sektorea” dala kontuan izanda.

Podemos taldeak, Eneritz de Madariaga bozeroalearen berbetan, eta EH Bilduk, Zigor Izuskiza batzarkidearen bitartez, Foru Arauaren aldaketea, Soziedadeen Zergan sartuz joan diran aldaketen ondorioa dala azpimarratu dabe. Hori dala eta, Soziedadeen Zergan sartu izan diran aldaketa horreekaz ados ez dagozanez, talde biek abstenidutea erabagi dabe.

BIZKAIKO ZERGA ARAUTEGIAREN EGOKITZAPENA, KONTZERTU EKONOMIKOAN SARTUTAKO ALDAKETAK DIRALA ETA

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara egokitzen dauen Foru arau proiektua onetsi dabe. Arauzko testuak, Iruarrizagak azaldu dauen moduan, 7 artikulu ditu –xedapenak aparte– eta bere helburu nagusia “Foru Arau arau-emoileen ostean, kontzertazino barriak ikututako zergak egokitzea” da.

Hori dala eta, egokitzapenak sartzen dira honeetan: Soziedadeen ganeko Zergaren Foru Arauan; Ez-egoiliarren Errentaren ganeko Zergaren Foru Arauan; Ondorengotzen eta

Dohaintzen Zergaren Foru Arauan; BEZaren Foru Arauan; Kreditu Erakundeetako depositituen ganeko Zergaren Foru Arauan; Joko-jardueren ganeko Zergaren Foru Arauan; eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean.

Horrez gain, Foru Arau horren barruan, Bizkaiko Foru Aldundiari gaitasuna emoten jako "beharrezkoak diran arauzko xedapenak emon daizan" Espainiagaz hartutako konpromisoak gauzatzeko eta formalizetako, "Bilbo 2020ko Eurokopako azken faseko egoitzetako bat izan daiten".

Horrez gain, aldaketak sartzen ditu hiru Foru Arautan –Zergen Foru Arau Orokorrean, Tokiko Ogasunetakoan eta Bizkaiko Foru Administrazinoaren Tasen, Prezio Publikoen eta beste Zerga Baliabide batzuenetakoan–.

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean aurretik adierazotakoagaz bat etorrita, Batzarretako ia talde guztiek aldeko botoa emon dabe artikulu guztietan eta xedapenetan, EH Bildu taldeak izan ezik. Batzordean adierazo eban moduan, barriro be "gardentasun faltea" aurpegiratu deutso. EH Bildu batzordekideak, oraingoan be, Bizkaia "UEFArentzat paradisu fiskala" izatea saihestu gura dauen zuzenketa-eskea defendidu dau.

Batzarretako Podemos taldearen aldeko eretxia jaso arren, zuzenketa-eskea ez da onetsi eta, hori dala eta, EH Bilduk xedapen horren kontrako botoa emon dau. Podemos taldeak artikulu guztien aldeko botoa emon dauen arren, azken xedapenetako bitan abstenidu egin da, horreetako bat 2020ko Eurokopari buruzkoa.

ARAUZKO FORU DEKRETUAREN ONESPENA

Eguneko gai zerrendea ixteko, Bizkaiko Batzar Nagusiek 3/2018 Foru Dekretu Arauemoilea, urriaren 9koa, foru-arau honeek aldatzen dituana, onetsi dabe: 7/1994 Foru Araua, zemendiaren 9koa, Balio Erantsiaren ganeko Zergari buruzkoa; 7/2014 Foru Araua, bagilaren 11koa, Joko-jardueren ganeko Zergari buruzkoa; 5/2014 Foru Araua, bagilaren 11koa, Berotegi-efektuko Gas Fluordunen ganeko Zergari buruzkoa; eta 12/2013 Foru Araua, abenduaren 5ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren ganeko Zergari buruzkoa.

Bozketak aldeko 33 boto izan ditu (EAJ-PNV, PSE-EE, Talde Mistoa eta PP) eta 15 abstentzino (Podemos eta EH Bildu).

Podemos taldeko bozeroaleak azaldu dauenez, bere taldea abstenidu egin da, ezin dauelako "kaltegarriak diran eta personen osasunerako eta bizitzarako ondorio larriak eragiten dituen jardueren zerga tasak jaistearen" aldeko botorik emon. EH Bildurentzat, Foru Dekretu horrek "argi eta garbi" erakusten dau "ez daukagula burujaubetza fiskalik eta Estaduaren mende gagozala".

NOTA DE PRENSA

12/12/18

# Las Juntas Generales aprueban la Norma Foral sobre Régimen Fiscal de Cooperativas del Territorio de Bizkaia

El pleno de Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana, en Gernika, la Norma Foral sobre Régimen Fiscal de Cooperativas del Territorio de Bizkaia. El dictamen llegaba a este último trámite parlamentario sin que ningún grupo juntero haya presentado ninguna enmienda al texto presentado por la Diputación.

El Proyecto de Norma Foral, de acuerdo con lo ya expresado en la Comisión de Economía y Hacienda, ha sido avalado por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, además de por el Grupo Popular y el Grupo Mixto. Los grupos EH Bildu y Podemos, sin embargo, han optado por la abstención.

El proyecto de la Norma Foral sobre Régimen Fiscal de Cooperativas del Territorio de Bizkaia, que se estructura en 54 artículos, ha sido presentado en la Cámara vizcaína por el Diputado foral de Hacienda y Finanzas. Iruarrizaga ha explicado nuevamente que este texto propone realizar "una revisión completa de las cooperativas, de su régimen fiscal especial, adecuando tanto su estructura, los conceptos, la técnica jurídica, la perspectiva de género y otro tipo de aspectos".

Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos se han mostrado a favor de esta modificación que pone en valor la importancia que tiene para Bizkaia el movimiento cooperativista "en nuestra realidad económica y en la creación y fomento de empleo".

También a favor, el portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz, ha definido este proyecto de Norma Foral como "oportuno" teniendo en cuenta que se trata de "un sector que tiene mucho arraigo en Bizkaia y que afecta a muchos empleos".

Tanto el grupo Podemos, a través de su apoderada Eneritz de Madariaga, como el grupo EH Bildu con su apoderado Zigor Izuskiza, han hecho hincapié en que la modificación de la Norma Foral es consecuencia, especialmente, de las modificaciones que se han ido introduciendo en el Impuesto de Sociedades. Por lo que, en disconformidad con esas modificaciones introducidas en el Impuesto de Sociedades, ambos grupos han optado por abstenerse.

ADAPTACIÓN DE LA NORMATIVA TRIBUTARIA DE BIZKAIA POR LAS MODIFICACIONES INTRODUCIDAS EN EL CONCIERTO ECONÓMICO

Por otra parte, las Juntas Generales han aprobado el Proyecto de Norma Foral por la que se adapta la normativa tributaria del territorio histórico de Bizkaia a las modificaciones introducidas en el concierto económico por la Ley 10/2017, de 28 de diciembre. El texto normativo, como ha explicado Iruarrizaga, consta de 7 artículos – excluyendo las disposiciones- y tiene como principal objetivo la "adaptación tras correspondientes Normas Forales reguladoras de los impuestos afectados por la nueva concertación".

Como consecuencia, se introducen adaptaciones en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades; la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de los No Residentes; la Norma

Foral del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones; la Norma Foral del IVA; la Norma Foral de Impuesto sobre los depósitos en las entidades de crédito; la Norma Foral del impuesto sobre actividades de juego; y la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Asimismo, esta Norma Foral incluye la habilitación a la Diputación Foral de Bizkaia para que pueda "dictar las disposiciones reglamentarias necesarias" para dar efectividad y formalizar los compromisos adquiridos con España "de cara a que Bilbao se convierta en una de las sedes de la fase final de la Eurocopa 2020".

Además introduce modificaciones en tres Normas Forales – General Tributaria, de Haciendas Locales, y de Tasas, Precios Públicos y otros Recursos Tributarios de la Administración Foral de Bizkaia -.

En consonancia con lo manifestado en la Comisión de Economía y Hacienda, casi todos los grupos junteros han votado favorablemente a todos los artículos como las disposiciones, a excepción del grupo EH Bildu, quién, como ya manifestó en comisión, ha vuelto a achacar "una falta de transparencia". La apoderada de EH Bildu ha defendido nuevamente una enmienda que busca evitar que Bizkaia sea "un paraíso fiscal para la UEFA".

A pesar de contar con el apoyo del grupo juntero Podemos, la enmienda ha decaído, y EH Bildu en consecuencia ha votado negativamente a esa disposición. El grupo Podemos, si bien ha votado a favor de todos los artículos, se ha abstenido en dos de las disposiciones finales, una de ellas la relativa a la Eurocopa 2010.

APROBACIÓN DE DECRETO FORAL NORMATIVO

Para cerrar el orden del día, las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado el Decreto Foral Normativo 3/2018, de 9 de octubre, por el que se modifica la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, la Norma Foral 7/2014, de 11 de junio, del impuesto sobre actividades de juego, la Norma Foral 5/2014, de 11 de junio, del impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero, y la Norma Foral 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Nuevamente la votación se ha sustanciado con 33 votos favorables (PNV, PSE-EE, Grupo Mixto y PP) y 15 abstenciones (Podemos y EH Bildu).

La portavoz de Podemos ha explicado que la abstención se debe a que su grupo no puede apoyar "la rebaja de los tipos impositivos a actividades que son nocivas y que generan graves perjudiciales para la salud y la vida de las personas". Para EH Bildu este Decreto Foral deja "bien claro" que "no tenemos soberanía fiscal y que estamos subordinados al Estado".